

<p>2009KO MARTXOAREN 27AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA</p> <p>=====</p> <p><u>BILDUTAKOAK</u></p> <p><u>LEHENDAKARIA</u></p>	<p>ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 27 DE MARZO DE 2009.</p> <p>=====</p> <p><u>ASISTENTES</u></p> <p><u>PRESIDENTE</u></p>
--	---

Imanol Landa Jauregi Jn.

<u>ALKATEORDEAK</u>	<u>TENIENTES DE ALCALDE</u>
---------------------	-----------------------------

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)  
 Joseba Arregui Martínez (EAJ-PNV)  
 Elena Coria Yanguas (EAJ/PNV)  
 Koldo Iturbe Mendilibar (EAJ-PNV)

<u>ZINEGOTZIAK</u>	<u>CONCEJALES</u>
--------------------	-------------------

Begoña Ezkurra Ciruelos (EAJ-PNV)  
 Aitor Soloeta Eraso (EAJ-PNV)  
 Kepa Miñambres Llona (EAJ-PNV)  
 Josu Loroño Goienetxe (EAJ/PNV)  
 Álvaro González Pérez (EAJ/PNV)  
 María Luisa Arrue Bergareche (P.P.)  
 Eduardo Andrade Aurrecoechea (P.P.)  
 Jesús Toca Toña (P.P.)  
 Iñaki Gamero Delgado (P.P.)  
 Raquel González Díez-Andino (P.P.)  
 Josu Ahedo Ruiz (P.P.)  
 Juan Luis Eguiluz Borde (P.P.)  
 Jone Ruiz de Eguilaz Salazar (P.P.)  
 Álvaro Rodríguez Ratón (P.P.)

Luis Almansa Rubio (P.S.E.-E.E.)  
Ricardo Villanueva Marcos (P.S.E.-E.E.)  
Mercedes Angulo Ordozgoiti (P.S.E.-E.E.)  
José Luis Cámara Ricondo (P.S.E.-E.E.)  
Iñaki Urkiza Arana (E.B.-B.)

<u>IDAZKARI NAGUSIA</u>	<u>SECRETARIO GENERAL</u>
-------------------------	---------------------------

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita Jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Imanol Landa Jauregi jauna dela, egun horretako goizeko hamarrak eta hogeita hamarreen, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita Kontu-hartzailea, Luis Angel Corcuera Ruiz jauna, ere.

Jorge Grases Garcia jauna zinegotzia ezin izan da etorri.

Alkate jaunak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaiza honakoa izan da:

**38.- 2009KO OTSAILAREN 27KO BILKURA ARRUNTEKO AKTA ONESTEIA.**

Getxoko Udal txit argiko Udalbatzak

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las diez horas y treinta minutos de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más el Sr. Interventor municipal don Luis Ángel Corcuera Ruiz.

No asistió el Concejal don Jorge Grases García.

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**38º.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 27 DE FEBRERO DE 2.009.**

Se aprobó el Acta de la anterior sesión

2009ko otsailaren 27an egindako osoko bilkura arrunteko akta onetsi da.

ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 27 de febrero de 2009.

## AL K A T E T Z A

### 39.- UDALERRIKO TERRORISMOAREN BIKTIMAK AINTZAT HARTZEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONAL ONESTEIA.

Proposamena irakurri ondoren, Marisa Arrue andreak adierazi du Udala getxotar guztien etxea dela eta gaur pozik egoteko arrazoia dagoela ETA talde terroristak zigortutako herriko biztanle askoren sufrimendua aitortzen delako, eta komenigarritzat jo du barkamena eskatzea aitortzeko egondako atzerapenagatik. Gogorazi du Talde Popularrak zortzi urte baino gehiago Udalak sufrimendu honi aintzatespena agertzeko eskatuz, eta adierazi du hemezortzi ekimen aurkeztu dituztela eta hauek guztiek Gobernu nazionalistaren ezezkoa jaso dutela. Bukatzeko, adierazi du, berandu bada ere, justizia egiten dela korporazioak egindako lehenengo aintzatespen honen bitartez.

Almansa jaunak adierazi du akordioa urteak beranduago iritsi dela baina iritsi dela eta akordio honen eta bere garapenaren bidez Getxoko Udalak biktimekiko zorra kitatzen duela, maitatutako norbait galtzearen oinazeaz pairatzeaz gainera, bere herrikide batzuen hoztasuna ere pairatu dutelako. Bukatzeko, adierazi

## A L C A L D I A

### 39º.- APROBACIÓN DE UNA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL SOBRE RECONOCIMIENTO A LAS VÍCTIMAS DEL TERRORISMO DEL MUNICIPIO.

Tras dar lectura a la propuesta, interviene Marisa Arrue para manifestar que el Ayuntamiento es la casa de todos los getxotarras y que hoy es un motivo de alegría porque se reconoce el sufrimiento de muchos vecinos del pueblo castigados por la banda terrorista ETA, y cree conveniente el pedir perdón por la tardanza en el reconocimiento. Recuerda que el grupo Popular lleva más de ocho años solicitando un reconocimiento municipal a tanto sufrimiento, manifestando que han sido dieciocho iniciativas las presentadas, y todas ellas cosecharon la negativa del equipo de Gobierno nacionalista. Finaliza que, aunque tarde, se hace justicia en este primer reconocimiento por parte de la corporación.

El Sr. Almansa indica que el acuerdo llega con años de retraso, pero que llega, y con este acuerdo y su desarrollo, el municipio de Getxo salda una deuda con las víctimas que, además de padecer el dolor de la pérdida de un ser querido, han sufrido también la desafección de parte de sus conciudadanos. Finaliza indicando

du berandu iritsita ere ez dela gaitzespenerako tenorea, pozerako eta akordioaren ildotik lanean hasteko ordua baizik.

Alkate jaunak bere poz bikoitza agertu du eta gogora ekarri du alkate bezala egindako lehendabiziko hitzaldian hartu zuen lehenengo konpromisoa biktimekin zegoen zorra kitatzea izan zela, aintzatespen egokia egindako, eta azkenean, talde politiko guztiakin adostasuna lortuta, promesa hori bete dela. Eta bigarrenik, azpimarratu nahi du Getxoko indarkeria terroristarena bezain sentibera den gaian talde guztien arteko akordioa lortu dutela, terrorismoa, bere adierazpen eta egiletza ezberdinetan, pairatu duten biktimak babestu eta aintzat hartzeko. Bukatzeko, adierazi du akordioa biktimak aitortzeko bidearen hasiera dela.

Epigrafearen adierazpena bozkatuta, Korporazioko kide guztien aldeko botoa jaso du.

Ondorioz, Alkatetza-Udalburutzak proposatuta, eta Bozera maileen Batzarrak aho batez erabaki ondoren, ondoko adierazpen instituzionala onestea erabaki da aho batez:

“Indarkeriaren biktimen aintzatespen moral, politiko eta soziala gairatu gabe dauka oraindik euskal gizarteak. Eusko Jaurlaritzak onartutako Bake eta Bizikidetzaren Planak adierazi bezala, urte guzti hauetan indarkeriaren biktimek pilatutako aintzatespen gabezia gure herriaren zor historikoa da, ahalik eta lasterren kitatu behar da eta lehenetsuna eman behar zaio.

que pese a que llega con retraso, no es momento de reproches sino de satisfacción y de empezar a trabajar en la línea del acuerdo.

El Sr. Alcalde expresa su doble satisfacción y recuerda que el primer compromiso que asumió en su primer discurso como Alcalde, fue el de resolver la deuda que se tenía con las víctimas, realizando el oportuno reconocimiento, y que por fin con el acuerdo de todos los grupos políticos se ha cumplido esta promesa. Y en segundo lugar quiere subrayar que en un tema tan sensible como el de la violencia terrorista en Getxo, se ha podido conseguir un acuerdo de todos los grupos, de apoyo y reconocimiento a las víctimas que han sufrido el terrorismo en sus diferentes expresiones y autorías. Finaliza manifestando que el acuerdo es únicamente el comienzo de un camino de reconocimiento a las víctimas.

Sometida la declaración del epígrafe a votación, obtiene la totalidad de todos de la Corporación.

En consecuencia, y a propuesta de la Alcaldía-Presidencia, y previo acuerdo unánime de la Junta de Portavoces, se acordó por unanimidad aprobar la siguiente Declaración Institucional:

“El reconocimiento moral, político y social de las víctimas del terrorismo sigue siendo aún hoy una asignatura pendiente en el seno de la sociedad vasca. En efecto, tal y como señala el Plan de Paz y Convivencia aprobado por el Gobierno Vasco, el déficit de reconocimiento acumulado por las víctimas del terrorismo durante todos estos años constituye una deuda histórica contraída por nuestro pueblo

Denoi dagokigun zeregin itzel honetan, indarkeriaren biktimak aintzateste honetan protagonismo berezia dute euskal udalerriek. Udalak dira herritarrengandik gertuen dauden erakundeak eta indarkeria terroristaren burugabekeriak eragindako mina sufritu duten biktimengandik gertuen dauden erakundeak ere badira. Gogoan izan behar da terrorismoaren biktimek maite dutenen bat galtzeaz gain, auzotarren eta herritarren utzikeria, interesik eza eta erasanik eza ere jasan behar izan dituztela.

Horrela, bada, erakundeetatik aintzateste edo kalteak ordaintzeko proposatutako ekimen orok helburu bikoitza izan behar du: batetik, biktimei inoiz kendu behar ez zitzaizkien duintasuna eta estimu sozial eta politikoa itzuli eta lehengoratu behar zaie. Hau da, euren herritartasun izaera berreskuratu behar da. Bestetik, erakundeek indarkeria terrorista deslegitimatzen duten duintasun moral eta zibikoa baieztatu behar da, helburu politikoak lortzeko metodo gisa.

Aurreko hori guztia kontuan izanda, Udal honek aho batez ADOSTU DU GETXON eraildako terrorismoaren biktimei OMENALDIA ETA AINTZATESPEN EKITALDIA egitea. Omenaldi horretan ornamenturako elementuren bat ezarriko da udalerriko toki esanguratsu eta publikoren batean, biktimak oroitzeko.

que es preciso saldar cuanto antes y con carácter prioritario.

En esta tarea ingente que nos incumbe a todos, el reconocimiento de las víctimas del terrorismo reserva, también, un protagonismo singular a los municipios vascos. Los Ayuntamientos son las instituciones más próximas a los ciudadanos e igualmente son las instituciones más cercanas a las víctimas que han sufrido el dolor provocado por la sinrazón de la violencia terrorista. Las víctimas del terrorismo, no hay que olvidarlo, han padecido no solo la pérdida de un ser querido sino el abandono, el desinterés y la desafección de sus propios vecinos y conciudadanos.

Así, cualquier iniciativa de desagravio o reconocimiento que se plantee desde las instituciones debe perseguir un doble objetivo: por un lado, restituir y devolver a las víctimas la dignidad y la estima social y política que nunca les debió ser arrebatada. En definitiva, restaurar su condición de ciudadanos. Y por otro lado, afirmar la dignidad moral y cívica de las instituciones en la deslegitimación de la violencia terrorista como método para la consecución de objetivos políticos.

Considerando todo lo anterior, este ayuntamiento ACUERDA por unanimidad la celebración de un ACTO DE RECONOCIMIENTO Y HOMENAJE en memoria de las víctimas del terrorismo asesinadas en GETXO. Un sentido homenaje que consistirá en la ejecución de un elemento ornamental en memoria y recuerdo de las mismas, a instalar en un lugar emblemático y público del municipio.

Era berean, Udal honek, burugabekeria terroristak eraildakoak gogorarazteko, ekimen hau urtero egingo du, uneoro dagokion forman eta moduan, baina argi utzita erakunde honek ahalegina egingo duela terrorismoak gure herrian bizia kendutako pertsonak aintzatesteko ekitaldiak sustatzea.

Azkenik, Udal honek adostu du herritarrei eta gizarte erakundeei deia egitea deitutako ekitaldietan parte har dezaten. Gu guztiok biktimekiko izan dezakegun elkartasun aktiboa da, zalantzarik gabe, jasan zuten mina eta utzikeria gogoan izanda eskain dezakegun zerbitzurik onena. Euren tragedia gogorarazteak gure herriaren aurka erabilitako indarkeria gogorarazten digu eta hori ez ahaztea da gure seme-alabentzako askatasunezko etorkizuna eraikitzeke modurik onena”.

Asimismo, este ayuntamiento, con el mismo propósito de preservar la memoria y el recuerdo de los asesinados por la barbarie terrorista, conferirá a esta iniciativa un carácter anual, en la forma y modo que convenga en cada momento, pero dejando, eso sí, patente el empeño de esta institución por promover actos que testimonien el reconocimiento de esta ciudad por las personas a las que el terrorismo arrebató sus vidas en nuestra ciudad / localidad.

Por último, este ayuntamiento acuerda, también, hacer un llamamiento a todos sus conciudadanos y entidades sociales para que con su presencia, participen en todos los actos convocados. La solidaridad activa de todos nosotros para con las víctimas es, sin duda, el mejor servicio que podemos prestar en atención al dolor y al abandono que padecieron. El recuerdo de su tragedia nos recuerda la violencia ejercida contra nuestro pueblo y no olvidarlo es la mejor manera de construir la nueva promesa de un futuro en libertad para nosotros y nuestro hijo/as.”

**OGASUN, EKONOMIA, GIZA  
BALIABIDE ETA KONTUAK**

**40.- ALKATETZA-  
UDALBURUTZAREN 1.178, 1.180,  
1.184 ETA 1.199/2009 DEKRETUEN  
BERRI EMATEA. BERAIEIEN BIDEZ,  
AURREKONTUA KREDITUEN  
BIDEZ ALDATU ZEN.**

**HACIENDA, ECONOMÍA,  
RECURSOS HUMANOS Y CUENTAS**

**40º.- DACIÓN DE CUENTA DE LOS  
DECRETOS DE LA ALCALDÍA-  
PRESIDENCIA NÚMS. 1.178, 1.180,  
1.184 Y 1.199/2009, DE  
MODIFICACIÓN  
PRESUPUESTARIA MEDIANTE  
HABILITACIÓN DE CRÉDITO.**

Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuen Informazio Batzordeak proposatuta, hauxe erabaki da:

Kreditua gaituz aurrekontua aldatzeko dekretu hauen jakitun geratzea:

1178 Dekretua, 2009-02-24koa, 362.739,94 €koa.  
1180 Dekretua, 2009-02-24koa, 40.000,00 €koa.  
1184 Dekretua, 2009-02-24koa, 1.767.172,44 €koa.  
1199 Dekretua, 2009-02-25ekoa, 1.322.632,00 €koa.

**41.- ALKATETZAREN 1.363/2009 DEKRETUAREN BERRI EMATEA, KREDITU GERAKINAK ERANTSIZ AURREKONTUA ALDATZEARI BURUZKOA.**

Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuen Informazio Batzordeak proposatuta, hauxe erabaki da:

2009ko martxoaren 5eko 1363 Dekretuaren jakitun geratzea. Beraren bidez kreditu gerakinak erantsi ziren, 28.279.253,03 eurotan.

**42.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN 1.244/2009 DEKRETUAREN BERRI EMATEA, 2008KO AURREKONTU**

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó:

Quedar enterados de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante el uso de habilitación de crédito.

Decreto nº 1178 de 24 de febrero de 2009 por un importe de 362.739,94 €.  
Decreto nº 1180 de 24 de febrero de 2009 por un importe de 40.000,00 €.  
Decreto nº 1184 de 24 de febrero de 2009 por un importe de 1.767.172,44 €.  
Decreto nº 1199 de 25 de febrero de 2009 por un importe de 1.322.632,00 €.

**41º.- DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO DE LA ALCALDÍA NÚM 1.363/2009, DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE INCORPORACIÓN DE REMANENTES DE CRÉDITO.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó:

Quedar enterados del Decreto 1363 de 5 de marzo de 2009 de Incorporación de Remanentes de Crédito, por un importe de 28.279.253,03 €.

**42º.- DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO DE LA ALCALDÍA-PRESIDENCIA NÚM 1.244/2009, DE APROBACIÓN DE LA**

## OROKORRAREN LIKIDAZIOA ONESTEARI BURUZKOA.

Proposamena irakurri ondoren, Andrade jaunak adierazi du talde popularrak, likidazioaren gainean, kritika eraikitzailea egin behar duela, izan ere, honek gobernu-taldeak 2008ko aurrekontua nola burutu duten adierazteko informazioa suposatzen du eta aipatutako informazioak gobernu-taldeak aurrekontua kudeatzeko gaitasunik ez duela agerian uzten baitu. Kudeaketarik ezak, berriz, Getxoko herritarrak kaltetzen ditu. Gogora ekarri du 2006. urtean Diruzaintzako sei milioiko Geldikinak izan zirela 27ra igo direnak 2007. urtean eta 46ra 2008. urtean, Udalak baimendu ezin dezakeen luxua dena, eta are gutxiago krisi ekonomikoko egoera batean. Adierazi du likidazioak ezintasuna erakusten duela hiru esparrutan: a) ezintasuna diru-sarreraren bilketa kudeatzeko, Euskadiko tasarik handienak finkatu arren, ez dutelako bere kobrantza kudeatzen, eta 7 milioi euro jasotzeke daude. Hauetatik 2,6 milioi euro kobratzen zailak jotzen direnetakoak dira. b) ezintasuna udal gastua aberastasuna sortuz kudeatzeko, burutzen duten gastu bakarra gastu arrunta eta Langileena direlako, baina ez dituzte aurrekontuan aurreikusitako ekoizpen-inbertsioak burutzen, hala nola lurren erosketa, bideetako inbertsioak..., eta euskara politikan, berriz, 1,3 milioi euro gastatzen dituzte, Enplegua Sustatzeko Zentroan, merkataritzarako laguntzetan, turismoan eta sustapen ekonomikoan gastatutakoaren batura baino gehiago dena. c) Ezintasuna bere legealdi plana bera betetzeko. Gogorarazi du gobernu-taldearen legealdi planak 2008.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO GENERAL 2008.

Tras darse lectura a la propuesta interviene el Sr. Andrade para manifestar que el grupo Popular va a realizar una crítica constructiva de la liquidación, ya que esta supone la información que facilita el equipo de Gobierno de cómo se ha ejecutado el Presupuesto de 2008, y que dicha información revela la incapacidad para gestionar el presupuesto por parte del equipo de Gobierno, falta de gestión que perjudica a los vecinos de Getxo. Recuerda que el año 2006 hubo seis millones de Remanentes de Tesorería que se incrementaron a 27 en el año 2007 y a 46 en el año 2008, lo cual es un lujo que el Ayuntamiento no se puede permitir, y menos en una situación de crisis económica. Indica que la liquidación demuestra incapacidad en tres ámbitos: a) incapacidad en gestionar la recaudación de los ingresos, ya que pese a fijar las tasas más altas de Euskadi, no se gestiona su cobro, estando pendientes 7 millones de euros, de los que 2,6 millones se califican de difícil cobro. b) incapacidad para gestionar el gasto municipal creando riqueza, ya que el único gasto que se ejecuta es el del gasto corriente y el de Personal, pero no se ejecutan inversiones productivas previstas presupuestariamente como son la compra de terrenos, inversiones en vialidad, en tanto que se gasta en políticas de euskera 1,3 millones de euros, que es más que la suma de lo gastado en el Centro de Promoción de Empleo, en ayudas al comercio, en turismo y en la promoción económica. c) Incapacidad para cumplir su propio plan de legislatura. Recuerda que el plan de legislatura del equipo de



urterako, eta aurrekontuko kontsignazioa eginda, txandakako aparkalekua, egoiliarren aparkalekua, babes etxebizitzak sustatzea, BOE egiteko lurzorua eskuratzea, enpresako zentroa, eguneko zentroa, Haur Eskola,...etab. aurreikusten zituela, eta ez dute adierazitakoaren ezer ere egin. Bukatzeko, adierazi du likidazioak kudeaketa-eredu ezgai eta nahikoa ez dena islatzen duela, Getxoko herritarrak zigortzen dituen.

Aitor Soloeta jaunak adierazi du likidazioak legezko eskakizun guztiak betetzen dituela, eta gogorarazi du aurrekontua aurretiko estimazioa dela eta likidazioan, berriz, gastu errealak eta aurrekontuko aurreikuspenekin egindako konparazioa ageri direla. Adierazi du 2008. urteko aurrekontuak 97 milioi euroko obrak eta zerbitzuak aurreikusten zituela, eta urte horretan bertan 114 milioiko obra eta zerbitzuen kontratazioa hasi dutela eta 109 milioi adjudikatu dituztela. Horrela, esan du zenbateko horietara iritsi direla aurreko urteetako geldikinei esker, eta hauek galdutako dirua ez direla, uholdeak bezalako aurreikusi gabe gastuei aurre egitea ahalbidetzen baitute, zergak murriztea ere ahalbidetzen dute, bai eta oraingo egoera ekonomikoari aurre egitea ere. Adierazi du hori guztia posible izan dela zorpetzera jo gabe, eta 18 milioi euroko aldeko emaitza eskuratuta. Horrek 36 milioi euroko Diruzaintzako Geldikina sortzen du, eta zenbateko honetatik 7 milioi lurzoruaren udal ondareari atxikita daude eta 5 Getxo Antzokiarekin lotuta daude. Hortaz, Geldikinen saldo librea 24 milioi eurokoa da. Berririo esan du 2008. urtean aurrekontuko kontsignazioen zenbatekoa baino handiagoko obrak hasi eta adjudikatu dituztela, ongialdi ekonomikoko

Gobierno preveía para el año 2008 y con consignación presupuestaria un parking rotatorio, un parking de residentes, promover las viviendas de protección, adquirir suelo para VPO, un centro empresarial, un centro de día, la Haur-eskola, etc, sin que se haya realizado nada de lo indicado. Finaliza manifestando que la liquidación refleja un modelo de gestión incapaz e insuficiente que castiga a los vecinos de Getxo.

Aitor Soloeta indica que la liquidación cumple todas las exigencias legales, recordando que el presupuesto es una estimación previa, mientras que la liquidación son los gastos reales y su comparación con las previsiones presupuestarias. Indica que el presupuesto del 2008 preveía obras y servicios por un total de 97 millones de euros, y que ese mismo año se ha iniciado la contratación de obras y servicios por importe de 114 millones y se han adjudicado 109 millones, cuantías que se han podido alcanzar gracias a los Remanentes de años anteriores, que no es un dinero perdido, ya que lo que posibilita es a hacer frente a gastos imprevistos como las inundaciones, permite también reducir impuestos, y hacer frente a la situación económica actual. Manifiesta que todo eso ha sido posible sin acudir a un endeudamiento, y obteniendo un resultado positivo de 18 millones de euros, lo que genera un Remanente de Tesorería de 36 millones de euros de los que 7 son afectos al patrimonio municipal del suelo y 5 vinculados al Getxo Antzokia, por lo que el saldo libre de Remanentes es de 24 millones de euros. Insiste en que en el año 2008 se han iniciado y adjudicado obras por importe superior a las consignaciones presupuestarias, gracias a la existencia

garaietan sortutako geldikinei esker. Kobratzeke dagoen kobrantzari dagokionez, adierazi du kasu gehienetan horrela gertatu dela abenduaren 31n borondatezko bidean ordainketak egiteko epeak edo bukatu gabeko prozedurak zeudelako, eta biltzen zailak ziren zenbatekoen kualifikazioak Udalaren berezko irizpideari erantzuten diola, honen arabera kalifikazio hori automatikoki egozten du zorra sortu denetik igaro den denboraren arabera. Datuak aurkeztu ditu, hauen arabera Udalak kudeaketa propioari dagozkion sarreren %90a baino gehiago bildu du, eta bildu gabe dagoen zenbatekoan errekurritutako espedienteak, Udalak emandako ordainketaren gerorapenak eta zatikapenak ere daude. Gogora ekarri du euskalduntzearen arloan 2008. urtean 1,3 milioi euro gastatu dituztela eta sustapen ekonomikorako eta Andrade jaunak aipatutako alderdietarako, berriz, 3 milioi euro baino gehiago. Bidean arloan, esan duenez, aurkeztutako aurrekontuaren %152ko zenbatekoko obrak hasi dituzte eta 2008. urteko aurrekontuan aurreikusitako kontsignazioaren %98a fakturatu dute.

Andrade jaunak kudeatzeko ezintasuna berriro azpimarratu du eta normaltzat jo du Diruzaintzako geldikina hain handia denean kreditura ez jotzea, baina 2009. urteko aurrekonturako, ordea, mailegua bai jasotzen dela esan du. Adierazi du zerga propioak biltzeko kudeaketari dagokionez, igo den bakarra eta aldeko bilketa izan duen bakarra isunena izan dela. Berriro adierazi du dirua gastatu gabe edukitzeak ez duela udalerriko bizikalitatea hobetzen, eta ongialdiko garaiak baliatu behar direla

de remanentes generados en épocas de bonanza económica. En relación al saldo pendiente de cobro manifiesta que la mayoría de los supuestos obedece a que a 31 de diciembre todavía existían plazos para realizar pagos en voluntaria o procedimientos sin finalizar, y que la cualificación de los importes de difícil recaudación obedece a un criterio propio del Ayuntamiento que automáticamente imputa esa calificación en función del tiempo que ha pasado desde la generación de la deuda. Aporta datos según los cuales el Ayuntamiento ha recaudado más del 90% de los ingresos que le corresponden de gestión propia, y que en lo no recaudado hay también expedientes recurridos, aplazamientos y fraccionamientos de pago otorgados por el Ayuntamiento. Recuerda que en el ámbito de la euskaldunización se gastó un total de 1,3 millones de euros el año 2008, mientras que para la promoción económica y los aspectos citados por el Sr. Andrade más de 3 millones de euros. En vialidad manifiesta que se han iniciado obras por importe del 152% del presupuesto presentado y se ha facturado el 98% de la consignación prevista en el presupuesto del 2008.

El Sr. Andrade insiste en la incapacidad gestora y entiende normal que con un remanente de Tesorería tan abultado no se recurra al crédito, pero que sin embargo para el presupuesto del año 2009 si se contempla un préstamo. Manifiesta que respecto a la gestión recaudatoria de los impuestos propios el único que se ha elevado y ha tenido una consideración de recaudación positiva es el de las multas. Insiste en que tener dinero sin gastar no mejora la calidad de vida del municipio, y que hay que aprovechar las épocas de

aberastasuna sortzen duten inbertsioak egiteko. Kritikatu du aurrekontuaren %0,07 bakarrik zuzentzea merkataritzarako laguntzetara eta %0,03a, berriz, sustapen ekonomikoko gastuetara. Ildo beretik, sustapen publikoko etxebizitzetan eta hauetarako lurzorua erosten gastatutakoa zero izatea ere kritikatu du. Bukatzeko, aurrekontuetan sustapen ekonomikorako, merkataritzarako laguntzak emateko, Behargintzarako,...eta abarretarako jasotakoak baino inbertsio gehiago egiteko eskatu du ekonomia berpizteko.

Aitor Soloeta jaunak adierazi du ez duela mailegurik eskatu 2009. urteko aurrekontua burutzeko eta berriro esan du xedapen libreko Diruzaintzako geldikina 24 milioi eurokoa izan dela. Berretsi du 2008. urtean egindako gastua hasiera batean aurrekontuan jasotakoa bainoa handiagoa izan dela eta hori Diruzaintzako Geldikina egoteari esker, eta zehaztu du Udalaren kudeaketa ekonomikoa ezin dela partzelatu urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean, etengabeko kudeaketa delako. Merkataritzari eta sustapen ekonomikoari eta turismoari dagokienez, gogorarazi du 2009. urteko aurrekontuak arlo horiek are gehiago garatzen dituela eta sustapen ekonomikoko plan baterako aurrekontu berezia 3 milioi euro baino handiagoa dela. Babestutako etxebizitzetarako lurrak eskuratzeari dagokionez, jarduketa horiek etxebizitza planarekin lotu ditu, eta berau korporazioko taldeen iritzien zain dagoela esan du.

Andrade jaunak berretsi du talde popularrak kezkarria deritzola Udalean 46 milioi ez gastatzeari - likidazioan islatuta dagoena, hain

bonanza para hacer inversiones que creen riqueza. Critica que solamente el 0,07% del presupuesto se dedique a ayudas al comercio, y el 0,03% a gastos en promoción económica, y que lo que se ha gastado en viviendas de promoción pública y en adquisición de suelo para las mismas haya sido cero. Finaliza solicitando más inversiones que las que se dedican en los presupuestos para promoción económica, ayuda al comercio, Behargintza, etc. a fin de reactivar la economía.

Aitor Soloeta indica que no ha solicitado ningún préstamo para la ejecución del presupuesto del año 2009, e insiste en que el remanente de Tesorería de libre disposición ha sido de 24 millones de euros. Se ratifica en que el gasto realizado en el año 2008 ha sido superior al inicialmente presupuestado y todo ello gracias a la existencia de Remanente de Tesorería, puntualizando que la gestión económica del Ayuntamiento no se puede parcelar entre 1 de enero y 31 de diciembre ya que es una gestión continua. En relación al comercio y a la promoción económica y al turismo, recuerda que el presupuesto de 2009 desarrolla aún más esas áreas con un presupuesto especial para un plan de promoción económica superior a 3 millones de euros. Respecto a la adquisición de terrenos para vivienda protegida vincula esas actuaciones al plan de vivienda que está en estos momentos a la espera de las opiniones de los grupos corporativos.

El Sr. Andrade se ratifica en que al grupo Popular le parece preocupante que no se gasten 46 millones en el Ayuntamiento, que es lo que la

zuzen-, bai eta urte bakoitzean aurrekontuan jasotako inbertsioak ez egiteari, honek herritarrei kalteak eragiten dizkielako. Bukatzeko, berriro adierazi du eskatzen dutena dela, aurrekontuak onetsitakoan, hauek denboraren barruan burutzea.

Aitor Soloeta jaunak berretsi du 2008. urtean hasiera batean aurrekontuan jasotakoa baino gehiago gastatu dutela, eta partidaren bat egin ez badute ere, hori, aurrekontua behin-behinekoa zela kontuan harturik, logikoa dela esan du.

Iñaki Urkizak adierazi du ez dituztela nahastu behar adjudikatutakoa eta gastatutakoa, ekitaldi batean gastatutakoa aurreko jarduketa batzuetatik etor baitaiteke, eta ekitaldi batean adjudikatutakoa, berriz, hurrengo urtean gastatu ahal daitekeelako. Eta ondorioz, gobernataldeari eskatu dio konparaketa homogeenak egiteko. Halaber, adierazi du ez dagoela ados zorpetzea ez egotea positibotzat jotzearekin, izan ere, bere iritziz krisi-garaian, inoiz baino gehiago, herri administrazioaren jarduera handia behar-beharrezkoa dela, zorpetzera jota, beharrezkoa bada, gastu soziala eta inbertsio publikoa bermatzeko, krisi-garaian gehien sufritzen dutenak egoera zaurgarrienean daudenak dira eta.

Almansa jaunak adierazi du krisi-garaiko zorpetzeko beharra azpimarratzeko eta gaineratu du bere taldeak onetsi duen 2009ko aurrekontuak zorpetzea jasotzen duela inbertsio eta gastu sozialetarako, baina aurrekontu horren aurkako boza eman duela Ezker Batuaren taldeak.

liquidación refleja, así como que no se realicen las inversiones presupuestadas cada año, lo que genera perjuicios a los vecinos. Finaliza insistiendo en que lo que piden es que, una vez que se aprueben los presupuestos, estos se ejecuten en tiempo.

Aitor Soloeta se ratifica en que el año 2008 se ha gastado más de lo inicialmente presupuestado, y que si bien alguna partida ha podido no realizarse, eso es algo lógico teniendo en cuenta el carácter provisional del presupuesto.

Iñaki Urkiza manifiesta que no hay que confundir lo adjudicado y lo gastado ya que lo gastado en un ejercicio puede venir de unas actuaciones anteriores, y lo que se adjudica un ejercicio puede gastarse el año siguiente, y por tanto, pide al equipo de Gobierno que haga comparaciones homogéneas. Manifiesta asimismo su disconformidad con que se configure como positivo la inexistencia de endeudamiento cuando estima que en épocas de crisis es más que nunca necesaria una actividad importante de la administración pública, recurriendo si es necesario al endeudamiento para garantizar el gasto social y la inversión pública, ya que en épocas de crisis los que más sufren son los más desfavorecidos.

El Sr. Almansa indica que interviene únicamente para hacer valer la necesidad del endeudamiento en época de crisis y que el presupuesto del 2009 que su grupo aprobó recoge un endeudamiento para inversión y gastos sociales, pero que dicho presupuesto fue votado en contra por el grupo de Ezker Batua.

Urkiza jaunak adierazi du gastuaren gaitasunik eza frogatuta gelditu dela geldikinak ez burutzean, eta horregatik geldikinak dauden partidetan aurrekontuko kontsignazioak handitzea kea saltzea dela, eta Almansa jaunari gogorarazi dio bere aurrekontuko adierazpenak hasi zituela esanez urte batean 1.000 etxebizitza egitea lortu behar zutela eta, ondoren, bi hilabeteren buruan, esan zuela 500 etxebizitza izango zirela bi urtetan.

Almansa jaunak Urkiza jaunari gogorarazi dio Gizarte Zerbitzuen eta Etxebizitzaren arduraduna izan dela aurreko legealdian, eta ez duela ezer gastatu lurzorua eskuratzeko eta ez duela babestutako etxebizitzarik burutu. Horrela, adierazi du berak adierazi duela aurrekontuko akordioaren bidez hiri-lurrean 800 etxebizitza eraikitzen joan ahal izateko aurrera egitea ahalbidetzen dela bakarrik.

Urkiza jauna ez da ados agertu etxebizitzarik burutu ez izanarekin, aurreko legealdian hasitako batzuk zozketatu berri dituztelako. Hala ere, gaiaren zailtasuna aitortu du eta, ondorioz, logikoa dela lehenik geldikinetan dagoena gastatzea eta ez kea saltzea.

Eztabaida bukatuta, Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuen Informazio Batzordeak proposatuta, hauxe erabaki da:

2009ko otsailaren 25eko 1244 Dekretuaren jakitun geratzea, 2008ko aurrekontu orokorraren likidazioa onesteari buruzkoa.

El Sr. Urkiza indica que se ha demostrado falta de capacidad del gasto al no ejecutar los remanentes, por lo que incrementar consignaciones presupuestarias en partidas de las que existen remanentes es vender humo, y recuerda al Sr. Almansa que inició sus declaraciones presupuestarias indicando que iban a conseguir la realización de 1.000 vivienda en un año para posteriormente a los dos meses pasar a decir que serían 500 viviendas en dos años.

El Sr. Almansa le recuerda al Sr. Urkiza que ha sido responsable de Servicios Sociales y de Vivienda en la anterior legislatura, sin que se haya gastado nada en adquisición de suelo ni se haya ejecutado ninguna vivienda protegida, y que él sólo ha manifestado que con el acuerdo presupuestario se posibilitan avanzar para poder ir construyendo 800 viviendas en suelo urbano.

El Sr. Urkiza discrepa de que no se haya ejecutado ninguna vivienda ya que se acaban de sortear unas que se iniciaron en la legislatura anterior, pero reconoce la dificultad del tema, y que por tanto lo lógico primero es gastar lo que existe en los remanentes y no vender humo.

Finalizado el debate, y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó:

Quedar enterados del Decreto 1244 de 25 de febrero de 2009, de aprobación de la Liquidación del Presupuesto General 2008.

**43.- UHOLDEEN ONDORIOZ  
SORTUTAKO ZENBAIT GASTURI  
AURRE EGITEKO KREDITU  
OSAGARRIA ONESTEA.**

Proposamena irakurri ondoren, Andrade jaunak adierazi du kreditu osagarria onetsi behar dutela, zenbatekoa ez dela nahikoa iruditu arren. Adierazi du talde popularrak 2009. urteko aurrekontuan zuzenketa ere aurkeztu duela milioi bat eurotan handitzeko Gobela ibaiaren uholdeei buruzko jarduketak egiteko zuzkidurak, eta zuzenketa hori ez dutela onartu. Bere iritziz, aipatutako partida handitu ahal lezakete Udalak dituen Diruzaintzako geldikin hain handiak baliatuz. Gogorarazi du 9 hilabete baino gehiago igaro dela eta oraindik ez dituztela hasi saneamenduko obrak edo aurreikusitako beste obra batzuk, eta herritarren berrostatzea ere ez dutela egin. Zehaztu du premiazko neurrien URA proiektua ekainean hastea aurreikusita dagoela eta obren iraupena hiru urte ingurukoa dela, Salsiduko eremua urpean gelditzeko arriskua guztiz konpondu gabe. Horregatik, eskatu dute berrostatzeko, behin-behinekoa bada ere, eta obrak baloratutakoan, behin betiko berrostatzea beharrezkoa den edo ez baloratzeko.

Keltse Eiguren andreak adierazi du kreditu osagarriak ez dela aurreko urteko kredituaren osagarri, aurreko urtetik gastatu gabe gelditu zenaren atal bakarra baizik. Horrela, esan du atal hori ezin izan dutela oraingo

**43º.- APROBACIÓN DE UN  
CRÉDITO ADICIONAL PARA  
HACER FRENTE A DIVERSOS  
GASTOS ORIGINADOS COMO  
CONSECUENCIA DE LAS  
INUNDACIONES.**

Tras darse lectura a la propuesta interviene el Sr. Andrade para manifestar que van a aprobar el crédito adicional, aunque la cuantía les parece insuficiente. Manifiesta que el grupo Popular ya presentó en el presupuesto del 2009 una enmienda para incrementar en un millón de euros las dotaciones para las actuaciones referentes a las inundaciones del río Gobela, enmienda que no se aceptó. Estiman que dicha partida podría incrementarse a partir de los remanentes de Tesorería tan abultados que tiene el Ayuntamiento. Recuerda que han pasado más de 9 meses y que todavía no se han iniciado las obras de saneamiento ni otras obras previstas, ni se ha resuelto el realojo de los vecinos. Matiza que el proyecto URA de medidas urgentes se prevé iniciar en junio y que la duración de las obras es de cerca de tres años, sin que garantice la solución total de la inundabilidad de la zona de Salsidu, por lo que piden el realojo, al menos provisional, y una vez finalizadas las obras valorar la necesidad o no de un realojo definitivo.

Keltse Eiguren manifiesta que el crédito adicional no complementa el crédito del año anterior sino que es la única parte de lo que quedó sin gastar del año anterior, que no ha podido ser trasladada al presupuesto actual a

aurrekontura eraman geldikinak erantsita. Berrostatzei dagokienez, bere tratamendua Uholdeen Batzorde Berezira igorri du.

Andrade jaunak adierazi du talde popularrak Gobela ibaiaren uholdeen inguruko jarduketetarako dauden zuzkidurak handitzea nahi dutela berrostatzei eta saneamenduko interbentzioei,...eta abarrei aurre egiteko. Gogorarazi du Uholdeen Batzorde Bereziaren azkeneko bi bileretan berrostatzeen gaia aztertu dutela baina konponbiderik lortu gabe.

Eztabaida bukatuta, aipatutako proposamena bozkatu dute, eta berau Korporazioko kide guztiek onetsi dute.

Ondorioz, Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuen Informazio Batzordeak proposatuta, hauxe erabaki da aho batez:

Kreditu gehigarriko 2009/01 espedientea onestea, 321.000,00 eurokoa. Ondoko aurrekontu partidetan eta zenbatekoetan du eragina:

través de la incorporación de remanentes. En relación a los realojos, remite su tratamiento a la Comisión Especial de Inundaciones.

El Sr. Andrade manifiesta que el grupo Popular quiere que se incrementen las dotaciones que existen para las actuaciones en torno a las inundaciones del río Gobela para hacer frente a realojos y a las intervenciones en el saneamiento, etc. Recuerda que en las dos últimas reuniones de la Comisión Especial de Inundaciones se ha tratado el tema de los realojos pero sin llegar a ningún tipo de resolución.

Finalizado el debate, se somete la propuesta de referencia a votación, que es aprobada por la totalidad de miembros de la Corporación.

En consecuencia, y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó por unanimidad:

Aprobar el Expediente número 2009/01 de Crédito Adicional, por importe de 321.000,00 euros, que afecta a las siguientes partidas presupuestaria e importes:

### Gastuak / Gastos

Aurrekontuko partida Partida Presupuestaria	Izendapena Denominación	Zenbatekoa eurotan Importe en €
01.2231.20200	Makinen alokairua Alquiler maquinaria	12.000,00
01.2231.22699	Zenbait gastu Gastos diversos	2.000,00
01.2231.22625	Alojamendu gastuak Gastos alojamiento	1.000,00
01.2231.22701	Garbiketa Limpieza	6.000,00
01.2231.48000	Familientzako eta enpresentzako diru-laguntzak	300.000,00

	Subvenciones a familias y empresas	
GUZTIRA		321.000,00
TOTAL		

### Finantzazioa / Financiación

Diruzaintzako gerakina gastu orokorretarako Remanente de Tesorería para Gastos Generales	321.000,00
---	------------

### HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK

44.- 2009-02-27ko 261 FORU AGINDUAREN BERRI EMATEA. BERAREN BIDEZ GETXOKO HAPOaren ALDAKETA ZEHATZ BAT BEHIN BETIKO ONETSI DA, EGIKARITZEN ARI DEN LURZORU URBANIZAGARRIARI BURUZKOA. HIRI LURZORU IZANGO DA AURRERANTZEAN ETA BOST BANAKETA EREMU BERRI SORTUKO DIRA.

Hirigintza, Obra eta Zerbitzuen Informazio Batzordeak proposatuta, hauxe erabaki da:

2009-02-27ko 261 Foru Aginduaren edukiaren jakitun geratzea. Beraren bidez behin betiko onetsi zen Getxoko Hiri Antolaketako Plan Orokorraren aldaketa zehatza, egikaritzen ari den lurzoru urbanizagarriari buruzkoa. Hiri lurzoru izango da aurrerantzean eta bost banaketa eremu berri sortuko dira.

### URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS

44°.- DACIÓN DE CUENTA DE LA ORDEN FORAL N° 261, DE 27.2.09, POR LA QUE SE APRUEBA DEFINITIVAMENTE LA MODIFICACIÓN PUNTUAL DEL PGOUG RELATIVA AL SUELO URBANIZABLE EN EJECUCIÓN, QUE PASA A CONSIDERARSE SUELO URBANO, CON CREACIÓN DE CINCO NUEVAS ÁREAS DE REPARTO.

A propuesta de la Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Servicios, se acordó:

Quedar enterados del contenido de la Orden Foral nº 261, de 27.02.09, por la que se aprueba definitivamente la Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana de Getxo relativa al suelo urbanizable en ejecución, que pasa a considerarse como suelo urbano, con creación de cinco nuevas áreas de reparto con sus fichas.

### 45.- EAEko JUSTIZIAKO AUZITEGI

### 45°.- DACIÓN DE CUENTA DEL



NAGUSIAREN  
ADMINISTRAZIOAREKIKO  
AUZIEN SALAREN 2008-12-23ko 207  
AUTOAREN BERRI EMATEA. AUTO  
HORREN BIDEZ, 1.030/07-2  
PROZEDURA BUKATUTZAT EMAN  
ZEN. M<sup>a</sup> ISABEL ARDANZA SECO  
ANDREAK HASI ZUEN  
PROZEDURA, UDALAREN OSOKO  
BILKURAREN 2007-04-27ko 84.  
ERABAKIAREN AURKA, 27.5-“SAN  
NIKOLAS” EGIKARITZE  
UNITATERAKO XEHETASUN  
AZTERLANA BEHIN BETIKO  
ONETSI ZUENA.

Hirigintza, Obra eta Zerbitzuen Informazio Batzordeak proposatuta, hauxe erabaki da:

EAEko Justiziako Auzitegi Nagusiaren 2008-12-23ko 207 autoaren JAKITUN GERATZEA. Auto horren bidez, 1.030/07-2 prozedura bukatutzat eman zen. M<sup>a</sup> ISABEL ARDANZA SECO andreak hasi zuen prozedura, udalaren osoko bilkuraren 2007-04-27ko 84. erabakiaren aurka, 27.5-“San Nikolas” egikaritze unitaterako xehetasun azterlana behin betiko onetsi zuena.

46.- DAUDEN ERAIKINETAKO  
BEHEKO SOLAIRUETAN DAUDEN  
LOKALAK ETXEBIZITZA  
BIHURTZEKO ORDENANTZA  
HASIERA BATEAN ONESTEA.

Proposamena irakurri ondoren, Urkiza jaunak adierazi du ulertzen duela

AUTO N<sup>o</sup> 207 DE 23.12.08 DE LA  
SALA DE LO CONTENCIOSO  
ADMINISTRATIVO DEL TSJPV,  
QUE DECLARA TERMINADO EL  
PROCEDIMIENTO 1.030/07-2  
INTERPUESTO POR DOÑA M<sup>a</sup>  
ISABEL ARDANZA SECO, FRENTE  
A ACUERDO N<sup>o</sup> 84 DEL PLENO DEL  
AYUNTAMIENTO DE 27.4.07 QUE  
APROBÓ CON CARÁCTER  
DEFINITIVO EL ESTUDIO DE  
DETALLE PARA LA U.E. 27.5-“SAN  
NIKOLAS”.

A propuesta de la Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Servicios, se acordó:

Quedar enterados del contenido del Auto n<sup>o</sup> 207, que dicta el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco el 23.12.08, por el que se declara terminado el procedimiento 1.030/07-2 interpuesto por D<sup>ña</sup>. M<sup>a</sup> ISABEL ARDANZA SECO frente al acuerdo n<sup>o</sup> 84, adoptado por el Ayuntamiento Pleno el 27.04.07, por el que fue aprobado, con carácter definitivo, el Estudio de Detalle para la Unidad de Ejecución 27.5-“San Nikolas”.

46°.- APROBACIÓN INICIAL DE LA  
ORDENANZA SOBRE  
CONVERSIÓN EN VIVIENDA DE  
LOCALES SITUADOS EN LAS  
PLANTAS BAJAS DE  
EDIFICACIONES EXISTENTES.

Tras darse lectura a la propuesta interviene el Sr. Urkiza para indicar que

lonjak etxebizitza bihurtzea ahalbidetzen duen ordenantzak bi atal bereizi ditu, bata merkataritzako garrantzi handikotzat hartutako eremuetan horrela bihurtzea debekatzearen printzipioa bere egiten duena, eta bestaldetik eremu eta kale horiek zein diren zehazten duena. Bigarren honetaz, bere iritziz Ordenantzaren aldaketak izango lirakeenak baino dinamikoagoa izan behar da, eta hortaz gerta litekeela etorkizunean ordenantzaren proposamenean jasotako idazketa aldatu behar izatea udalerraren beraren bilakaeraren arabera. Bukatzeko, Udal talde guztiek lortutako akordioaren gainean balorazio baikorra egin du eta adierazi du hori horrela gertatu dela gobernu-taldearen proposamenak garaiz helarazi dituztelako eta oposizioaren ekarpenak entzun eta baloratu dituztelako.

Talde Popularraren Gamero jaunak proposamena positiboki baloratu du - babestu behar dute-, izan ere, erakusten du aurreko Ordenantzak merkataritzako eremuan hustea ahalbidetzen zuela, eta arazo hau desagertzen da onetsi beharreko ordenantzako proposamenaren bidez. Gogorarazi du arazo hori Talde Popularrak iragarri duela eta talde honek aurreko ordenantzaren aurrean abstentzioa ematea eragin zuela. Bukatzeko, gai honetan erabilitako lan-metodoa, berriztat jo duena, positiboki baloratu du, izan ere, gobernu-taldeak proposamenak denboraz aurkeztu ditu eta horrek udal talde guztien ekarpenak eta bere balorazioa egitea ahalbidetu du.

Joseba Arregi jaunak, gobernu-taldearen izenean, adierazi du

entiende que la Ordenanza que posibilita la conversión de lonjas en vivienda tiene dos partes diferenciadas, una la que asume el principio de prohibir dicha conversión en aquéllas zonas que se entienden de gran importancia comercial, y por otro lado está la definición de cuáles son esas zonas y calles, que considera debe ser más dinámica que lo que serían las modificaciones de la Ordenanza, y que por tanto es posible que a futuro la redacción que en la propuesta de ordenanza se contempla tenga que ser modificada en función de la evolución del propio municipio. Finaliza valorando positivamente el acuerdo alcanzado por parte de todos los grupos municipales, y estima que ello ha sido posible porque las propuesta del equipo de Gobierno se han trasladado con tiempo y se han escuchado y valorado las aportaciones de la oposición.

El Sr. Gamero del grupo Popular valora positivamente la propuesta, que apoyarán, ya que demuestra que la Ordenanza anterior posibilitaba la desertización de zonas comerciales, problema que se supera con la propuesta de ordenanza que se va a aprobar. Recuerda que ese problema fue anunciado por el grupo Popular y que conllevó la abstención de dicho grupo frente a la anterior ordenanza. Finaliza valorando positivamente el método de trabajo utilizado en este tema, que califica de nuevo, ya que el equipo de Gobierno ha presentado propuestas con tiempo, lo que ha posibilitado aportaciones de todos los grupos municipales y su valoración.

Joseba Arregi, en nombre del equipo de Gobierno manifiesta que la ordenanza

ordenantza Lehendakaritza, Ekonomia Sustapena eta Hirigintza Arloetan jaio dela eta talde guztiei emandako testua eta honen ondorengo tratamendua gobernu-taldea udal jarduketak eramaten saiatzen den sistema dela, eta beste batzuetan ezinezkoa gertatu bada talde guztien erantzukizunagatik izan dela.

Uste du 2006. urteko ordenantzak bere helburua bete duela baina orain aldatzea beharrezkoa dela merkataritzako eremu batzuk babestu eta gai teknikoak eta irisgarritasunekoak konpontzeko.

Aipatutako proposamena bozkatuta, Korporazioko kide guztiek onetsi dute.

Ondorioz, Hirigintza, Obra eta Zerbitzuen Informazio Batzordeak proposatuta, hauxe erabaki da aho batez:

LEHENENGOA.- DAUDEN ERAIKINETAKO BEHEKO SOLAIRUETAN DAUDEN LOKALAK ETXEBIZITZA BIHURTZEKO ORDENANTZA hasiera batean onetsiko da.

BIGARRENA.- Espedientea jendaurrean erakutsiko da, eta interesatuei entzunaldia emango zaio. Horretarako, iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, hogeita hamar egunez, erreklamazioak eta iradokizunak egiteko.

HIRUGARRENA.- Erreklamaziorik edo iradokizunik ez bada aurkezten, ordenantza hau behin betiko onetsita geratuko da. Alkatetza-Udalburutzak argitaratzeko eta betetzeko ahalmena izango du.

